

ek!

eta kitto!
euskaraz elkarrekin

2025eko abenduak 19 • 1378 zenbakia

EIBAR ANTIFAXISMOAREN LUBAKI



Zorionak eta
urte berri on!!

EUKI

- LEGEZKOA
- ZERGAZKOA
- FINANTZARIOA
- LAN ARLOKOA
- ENPRESEN BALORAZIOA

www.euki.com

📍 Ifarkale, 1 behe. Eibar 📞 Tel: 943 204 291 ✉ asesoria@euki.com



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontozian, implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikian Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikian Diplomatua.
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Okklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapatueta:
10:00etatik 14:00etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan



Sortu berri den Eibarko Asanblada Antifaxistak antolatuta, Faxismoaren Aurkako Eguna egingo da bihar, abenduak 20. Hitzaldia, poteo-girotua, bazkaria, musika emanaldi akustikoa, umore bakarrizketa, kontzertuak eta dj-ak egongo dira egun guztian zehar. Bideo hau eta beste asko ...eta kitto!-ren YouTubeko kanalean ikus daitezke.

www.etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Silbia

Hernandez, Irune Jaio eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Irune Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOAK

943 20 67 76

AZALA

Irune Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eskutitzak



Laster arte

Astixako lan taldetik idazten dizuegu. Badaramatzagu urte batzuk, 34 hain zuzen ere, Eibarko ume eta nerabeen aisialdian lan egiten eta orain zuengana gerturatzen gara aurtengo Gabonetako Udal programetan (Astelena Haur Parkea, Olentzeroren Kalejira, Errege Magoen kalejiran...) eta uda garaiko ekintzetan (Afariketak, Udan jolasean, Firin faran, Urdaibai...) EZ GARELA EGONGO esaten.

Programa hauek beste asko bezala proiektu publikoetan oinarritzen dira eta aurtren Eibarkoa ez den enpresa batek bideratuko dituela informatzea garrantzitsua eta beharrezkoa iruditzen zaigu, transmititu diguzuen KONFIDANTZAGATIK.

Urte askoan zuen alboan egon gara eta PLAZER handia izan da zuekin aritzea, aurrez aurre egon garenean edota bulegoan kudeaketa lanetan buru belarri murgilduta ibili garenean.

ESKERRIK ASKO DENOI eman diguzuen momentu guztiengatik, denetatik ikasten delako eta gure motxila primeran elikatzen joan zaretelako. Zorionez momentu on pila bat etortzen zaizkigu burura eta horiekin geratuko gara. Ez pentsa adio gutun bat denik, gero arte bat baizik, Laster arte.

Astixa

Hortik esanak



Askok masterra ez dute egiten hezkuntzarako bokazioa dutelako, bigarren aukera gisa baizik. Azken finean, gogoratu behar dugu bestelako karreretatik datozen ikasleak direla DBHko irakasleak. DBHko ikasleak nerabezaroan daude, beren pertsonalitatearen garapen betean, eta irakasleak ez du bakarrik bere materia lantzerantz jardun behar, garapean ere arreta jarri behar du. Denak ez du balio hezkuntzan. Ikasgelan aurkituko dutenarekin konprometituta dauden profesionalak behar ditugu. Maisuak edo maistrak egunero ikasgelan aurkitzen duen aniztasunari eta ikasleengarapen sozioemozionalari erantzun behar die, eta ikasgeletako aniztasun hori handitzen ari da. Ez da bakarrik ezagutzaren arlo jakin batzuen inguruan irakastea, zeinak funtsezkoak diren, baita ere da familiekin lan egitea eta inklusioa sustatzea

Lucía Herrera, Espainiako Estatuko Hezkuntza Dekanoen Konferentziako presidente

Urtekaria abenduaren 30ean

Datorren astean Gabonetan guztiz sartuta egongo garenez, urteko azken alea –urtekaria izango dena– barixakuan kaleratu beharrean, martitzenean (hilaren 30ean) izango duzue zuen buzoietan. Urteko azken alea izango den hori Gabon Zahar egunean ospatuko dugun Eibarko Kirol Sarien ekitaldiaren bezperan helduko zaizue beraz.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PITXITXI → Ume-berbetan, txakurra. “Pitxitxik jan detsu ogixa”.

PIXAU → Zerbaiten pixua hartu. Gaztelerazko ‘Pesar’.

“Pixairazu, Txomin, liberdri bat iztarretik”.

PIXKAKA → Pixka bat, apur bat. “Ekarrizu mesedez zianuro pixkat”.

1971-72

Olentzeroren kalejira Estaziño kalea zeharkatzen

Argazki hau egin zenetik gaur arte 50 urte baino gehiago igaro diren arren, gauzak ez dira horrenbeste aldatu: Olentzero oraingo moduan, arropa berberak jantzita etortzen zen orduan ere. Hori bai, asto gainean eta ahoan pipa zuela ibiltzen zen sasoi hartan.

FOTOPLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 19
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ZAPATUA 20
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 21
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ASTELEHENA 22
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 23
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUAZTENA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUENA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
BARIXAKUA 26
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
ZAPATUA 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ZAPATUA 28
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
ZAPATUA 29
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 30
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Raul Perez Abad.** 82 urte. 2025-XII-03.
- **Eusebio Jainaga Narbaiza.** 88 urte. 2025-XII-05.
- **Jose Manuel Oruezabal Lizaso.** 87 urte. 2025-XII-06.
- **Juan Luis Arrizabalaga Alberdi.** 2025-XII-06.
- **Gregoria Gerrikabeitia Barruetabeña.** 93 urte. 2025-XII-07.
- **Lorenzo Soto Lorenzo.** 72 urte. 2025-XII-09.
- **Sergio Ferreira La Cruz.** 46 urte. 2025-XII-09
- **M^a Cruz Assailly Agirre.** 96 urte. 2025-XII-09
- **M^a Arrate Egiguren Agirregomezkorta.** 94 urte. 2025-XII-09.
- **M^a Nieves Madinabeitia Uribetxebarria.** 90 urte. 2025-XII-11.
- **Javier Larrañaga Etcheberria.** 77 urte. 2025-XII-11.
- **Ana Mari Arizmendiarreta Azcarate.** 96 urte. 2025-XII-11.
- **M^a Ines Atxa Elkoro.** 82 urte. 2025-XII-13.
- **Carmelo Rosales Merlo.** 91 urte. 2025-XII-13.
- **Maria Quesada Campos.** 84 urte. 2025-XII-14.
- **Pedro Machado Martinez.** 73 urte. 2025-XII-14.
- **Ernesto Baroja Sukia.** 65 urte. 2025-XII-17.



Eibar BHI-ko ikasleek sanandresetan saldutako rifen zozketa egin da

S.H. Eibar BHI institutukoek San Andres jaietako postuetan saldutako rifen zozketa egin dute, eta hauek dira zenbaki irabazleak: 172 (1. saritua, A otarra) eta 432 (2. saritua, B otarra); ordezkotako zenbakiak, berriz, 248 eta 389 dira, hurrenez hurren. Ikastetxetik adierazi dutenez, gaurko (14:10etarako) ez bada saridunik agertu, ordezkotako zenbakia duenarentzat izango da saria (Eibar BHI-ren webgunean emango dute horren berri), eta astelehenean joan liteke sari bila, 08:10etik 15:05era.

Zabaldutako Eibart elkarteak urtero antolatzen duen Gabonetako azoka

S.H. Eguaztenean zabaldutako Gabonetako XXI. azoka Untzagan. *Eibart* Eibarko artisauen elkarteak antolatzen du, urtero, Gipuzkoa-ko Foru Aldundiaren babesarekin eta Eibarko Udalaren laguntzarekin. Urteroko martxan, bertan parte hartzera animatu diren artisauak ia denetik eskainiko diete gerturatzen direnei, “dena eskuz

egina eta, gainera, herritik ateratzeko premia izan barik”. Partehartzaileak hauek dira: Hartara, Eskune, Zuehina, Mirartilustracions, Eskulan, Ione Martinez Diseinuk, Isabel Orozco eta Amaraun Makrame. Urtarrilaren 5era arte zabalduko dute, goizez zein arratsaldez (11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era).



Ikustera joateko moduko jaiotza ipini dute Azitaingo parrokiari

S.H. Urtero bezala, Azitaingo parrokiari jaiotza ederra ipini dute ikusgai Gabonetarako. Elizako arduradunek jakinarazi dutenez, domeketan eta jai egunetan ospatzen den 10:30eko meza hasi aurretik eta amaitu ostean eliza zabalik egoten da eta, beraz, nahi duenak orduan dauka ikustera joateko aukera. Jaiotza parrokiako lagunen lanari esker egin da.





Santa Kurutzeko kanpaia lapurtu dute

S.H. Santa Kurutz ermitako kanpaia lapurtu dute, Arrateko bailaran. Mendizale bat ohartu da haren faltaz aste honetan. Antzeko lapurreta gertatu zen azaroaren hasieran San Salvador ermitan. Halako lapurretak ez dira berriak, brontzearen merkatu-balioak pizten baitu lapurren interesa. Debarrenean ere izan dira antzeko

beste kasu batzuk azken urteotan: Soraluzen, Txurruka auzoko San Inazio ermitako kanpaia lapurtu zuten 2023ko martxoan; eta Karakaten mendiak identifikatzeko brontzezko mapa ere desagertu zen orain dela bi urte. Eta, Elgetan ere, Asentzio ermitako kanpaia eraman zuten lapurrek 2023ko martxoan.

Gabonetako Azoka egingo dute Ipuruako Merkatu Plazakoek asteburuan

Aurten ere Gabonetako Azoka egingo dute Ipuruako Merkatu Plazan eta, antolatzaileek diotenez, “Gabonetarako azken orduko erosketak egiteko aukera bikaina izango da”. Asteburu honetan, bihar (zapatua) eta etzi (domeka) zabalduko dute azoka, zapatuan egun osoan (11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara), eta domekan goizez bakarrik (11:30etik 14:30era).



FUNEUSKADI
Dirutiak

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Osaola, 27 Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Elgoibar: Xikillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Osaola hilerriaren ondoan) Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 15
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

leku berri bat

TOPA-LEKU
taberna

egunero elkarrekin egoteko

Ego-Gain, 2
943 558728

ek!

Zure publizitatea herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus



Kale egoeran daudenentzat arropak eta materiala bilduko dute abenduaren 27an

Etxebizitza Sindikatu Sozialistak neguko arropa eta oinarritzko material bilketa antolatu du, kale egoeran dauden pertsonen laguntzeko. Abenduaren 27an (zapateria) izango da bilketa, 12:00etatik 14:00etara, Untzagan. Mantak, lo-zakuak, esterillak, neguko zapatak, bufandak, eskularruak eta negurako arropa jasoko dute, besteak beste, eta soilik egoera onean badago. Bildutako materiala aurrerago banatuko dute. Horrez gain, ekimena antolatzen lagundu nahi duen herritarrik balego, sindikatuarekin harremanetan jar daiteke, telefono zenbaki honen bidez: 688 695 625.



1949. urtean jaiotako eibartarren ospakizuna

S.H. Argazkian dauden andra-gizonek abenduaren 11n ospatu zuten beraien kinto-jai, eta ederto ibili zirela esan digute. Eguerdian elkartu eta Untzagan argazkia egin ondoren, Azitain hotelean bazkaldu zuten.



Korrikako arropak eta petoak salduko dituzte Untzagan domekan

S.H. 24. Korrika 2026ko martxoaren 19tik 26ra izango da, Atharratetik Bilbora, eta Eibarko AEK euskaltegikoek Korrikako arropa eta petoak saltzeko mahaia ipiniko dute domekan (abenduak 21), 12:00etatik 14:00etara Untzagan (arkupeetan). Azaldu duteenez, “kolore desberdinetako kamisetak (mahuka motzak nahiz luzeak), kirol-jertseak, lepokoak, galtzerdiak, biserak... eta Korrikako petoak ere jada izango ditugu eskuragarri. Horrez gain, Korrika laguntzaile pina egiteko aukera ere egongo da. Horren bidez, korrikari laguntzeaz gain, asteroko zozketa-tan parte hartzeko aukera izango da”. Dena dela, arropak eta petoak AEK euskaltegian (Sostoa-tarren, 1 edota 943201379 telefonoan) eskuratzeko aukera ere badago, eta materiala ere bertan dago ikusgai.

Korrikaren edizio honetarako mezua *Euskara gara* da, eta aurreko astean eman zuten ezagutzera 24. Korrikako kantua: *Xiberutikan Mendebaldera*. Zetak, Maixux Zugarramurdik eta Erramun Martikorenak jarri diote ahotsa, eta kantua bideoklipa ere ikusgai dago www.korrika.eus webgunean, Korrikari buruzko informazio guztiarekin batera.

“Txopitea eta Pakea” saria jasoko du bihar Felix Elkoroiribek

S.H. Bihar, abenduak 20, eman-go diote *Txopitea eta Pakea* saria Felix Elkoroiribe eibartarrari, “bizitza osoan izandako konpromiso sozialagatik”. Omenaldia herritar guztientzat atekabalik egingo da, bihar, 12:00etan udaletxeko pleno aretoan. Jorge Oteizaren eskultura enblematikoaren erreplika hori da Eibarko Udalak egin dezakeen aitortzarik handiena eta, sari horren bidez, Eibarko Udalak Elkoroiribere ibilbide pertsonal eta profesionala aitortu nahi ditu, “baita Eibarrekiko eta bertako herritarrekiko izan duen konpromiso iraunkorra ere. Ekitaldian, lan egiteko modu diskretua, bizikidetzan oinarritua

eta guztion onura helburu izan duena nabarmenduko da”.

Felix Elkoroiribe 1946an jaio zen, Arragueta zeharkalean. Ingeniaria eta matematikazalea izanik, irakasle lanetan aritu zen urteetan, baina bere lan-ibilbidearen zatirik handiena Eibarko Udalean egin zuen, Zerbitzu Sailean. Udaletik azpimarratu dutenez, erretiratu ondoren ere, Eibarko bizitza sozialean eta herriko hainbat taldetan modu aktiboan parte hartzen jarraitu du. Bereziki nabarmendu dute Untzaga Zentro Sozialean egindako lana, “non hamabi urtez presidente izan zen, eta modernizazio-prozesu garrantzitsua bultzatu zuen”. Horrez



gain, pertsona nagusien mugimenduan, kulturean, koru-kantuan eta, batez ere, Eibar foball taldearen alde aritu izan da beti, eta egindako guztia eskertuko diote.



**Grabados
LÁSER 2D**

Matsaria kalea 10-2º Eibar
Tel. 623441405
grabadoslaser2d@gmail.com
www.grabadoslaser2d.com

Pertsonalizatutako produktuak:

- Garaikurrak
- Dominak
- Larruzko giltzatak
- Erantzun-kaxak
- Ezkontza eta jaioztetarako opariak

“Herriak eta naturak ez dute lekurik Basalgoko proiektuan”

Testua **IRATI ALVAREZ** | Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Eibarko Mendiak Bizirik plataforma herri-alegazioak prestatzen ibili da proiektuaren berri izan zenetik. Plataformako kideek txostena zehatz aztertu, herritarrei informazioa eman eta ingurumenaren, ondarearen eta biztanleen osasuna defendatzen ibili dira jo eta su.

Elkarrizketa, YouTube plataforman ikusgai



Urria erdialde inguruan Eusko Jaurlaritzaren Boletinean argitaratu zen Arena Power Solar enpresa andaluziarrak Asurtzatik Illordora doan mendilerroan sei haize-errota handi instalatzeko asmoa zuela. Horren aurkako alegazioak aurkezteko hilabeteko epea ezarri zuten, ondoren luzatu zena. Proiektuari aurre egiteko, Eibarko Mendiak Bizirik herri plataforma sortu da. Plataformak herritarrei proiektuaren inguruko informazioa helarazi eta alegazio teknikoak prestatu ditu, ingurumenaren eta ondare historikoaren babesa helburu. Aritz Larrañaga, plataformako kideak, argi adierazi du: “Proiektu honek ez du inolako zentzurik, proiektua ipini nahi duten lekua guztiz desproporzionatua delako”.

Aritz Larrañagak azaldu duenez, enpresak, proiektua prestatzen bi urte igaro ondoren, hiru mila orritik gorako txosten teknikoa argitaratu du. “Hori guztia aztertu eta alegazio juridiko indartsuak aurkezteko

soilik 30 egun eman dizkigute”, dio. Nabarmendu duenez, proiektuaren instalakuntzak ez dira mendian hainbat haize-errota jartzera mugatzen: sei metroko pistak eraiki behar dituzte, eta aerosorgailuen palak 100 metrokoak dira, kamioietan garraiatu beharko dituztenak. “Hori guztia egiteko, ingurugiroaren suntsipena izugarria izango da”, azpimarratu du.

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako dokumentazioa oinarri hartuta, Aritzek azaldu du, sei haize-errota horiek 2,5 kilometroko mendilerroan jarri nahi dituztela, mendi erdia baino gehiago okupatuz. Aparatu hauek Arrasatetik, Kanpanzar barrena eta Elgeta zeharkatuz eramango dituzte, bidean 13.000 zuhaitz moztuz. Lekuan bertan, 12 futbol zelai neurriko lautunak egingo dituzte, %30 eta %40ko maldak dituzten tokietan.

Aritzek konparazioa egin du Oizeko haize-errotekin: “Hauek hiru aldiz handiagoak dira, eta Soralue eta Eibar Durango baino gertuago



Aritz Larrañaga, Eibarko Mendiak Bizirik plataformako kidea. IRATIALVAREZ

egongo dira. Behin obra amaituta, 300.000 metro karratuko espazioa betirako okupatuko dute, eta sortutako energia Elgoibarko azpiestazio elektrikorako bideratuko dute.

Aritz Larrañagak nabarmendu duenez, Basalgoko haize-errotek eragin handia izango dute inguruko zarata mailan. Paloma aerosorgailua, herritik gertuen dagoena, Azi-

taindik kilometro eskasera kokatzen da, eta Sautxi auzoa zein herrigunea bikilometro gutxira daude. Aerosorgailuak eguneko eta gaueko ordutan etengabe martxan egongo dira, eta sortzen duten zarata handia Azitaindik entzungo dela ohartarazi du plataformako kideak. "Gainera, bibrazioek infrasoinuak sortuko dituzte. Gure belarriek ezin antzeman

>>> "Proiektu honek ez du inolako zentzurik, proiektua ipini nahi duten lekua guztiz desproportzionatua delako"

**HIREKIN
HAMAİKA IKUSTEKO**

Euskaraz bizitzeko, kultura partekatze, hamaika istorio, bizipen eta momentu elkarrekin bizitzeko.

Gure ondarea bizirik mantentzeko artea eta sormena bultzatzeko momentua da.

Egin zure ekarpena

hamaika



Kamioiak eta haize-erroten neurriak. Eibarko Mendiak Bizirik herri plataformak txosten publikotik ateratako irudia.

>>> "Herritar askok sinatu dituzte alegazioak, eta horrek argi erakusten du proiektu honek sortu duen kezka eta ezinegona"

arren, ikerketek adierazten dutenez, osasunean kaltegarriak izan daitezke. Aerosorgailuak mendikatearen ekialdean daude, eta eguzkia irtezen den bakoitzean palak etengabe bueltaka arituko dira, sortzen duten aldizkako kerizpeak deserosotasuna eta arriskuak handituz. Horrez gain, desmonteak eta lur-zati handien zabaltzeak uholde-arriskuak eta erosioa handituko lituzke, eta haize-errotek sua erraz har dezaketez, sute arriskua ere handitzen da”.

Fauna eta flora eragina

Fauna eta flora ere mehatxupean daudela ohartarazi du kideak. “Fauna eta flora ugari dago inguru horretan. Informatzen hasi ginenean konturatu ginen desagertzeko arriskuan dauden animaliak bizi direla bertan. Esaterako, miru gorriak, desagertzeko arrisku larrian dagoen hegaztiak, Maltzagan bertan habia du. Espezie hauek babesteko legeak bi kilometroko segurtasun perimetrea ezartzen du, baina proiektuak hori ez du kontuan hartzen. Bai proiektuak berak, bai energia Elgoibarrera bideratzeko kablek ez dute espeziea babesten”, dio Larrañagak.

Mugarrien desagerpena

Larrañagak nabarmendu duenez, proiektua egiteko aukeratutako guzietan gerra zibileko aztarnak eta mugarriak daude: “Illordotik Azurtzara doan mendilerroak bi eremu

historiko handi lotzen ditu, eta bide guztian trintxerak ikus daitezke. Plataformako kideok bertara joan ginen, ingurua garbitu eta aztarna batzuk bistartzeko, eta ikusi genuen aerosorgailu bat jarri nahi duten tokian 1700. urteko mugarri bat dagoela, baina txostenean ez dute azaltzen zer egingo duten horrekin”.

Sinadura kanpaina

Herritarrekiko harremana ere nabarmendu du Larrañagak. Kanpaina hasi zenetik, herrian hainbat informazio puntu jarri dituzte, eta jende asko gerturatu da informatzeko eta sinadura bat emateko. “Dagoeneko 4.000 sinadura baino gehiago bildu ditugu. Herritarrek erakusten dute interesa dutela proiektua gelditzeko”, dio. Kanpaina amaitzeko, abenduaren 19an ekitaldi sinbolikoa egingo dute Untzagan, arratsaldeko zazpitan. Bertan, azken sinadurak jasoko dituzte eta Basalgoko proiektuaren aurkako ‘familia-argazkia’ egingo dute. Alegazioak aurkezteko epea, berri, abenduaren 22an amaituko da.

Plataformak ohartarazi duenez, Arena Power-en dokumentazioa aztertzen jarraitzen dute, hutsune tekniko ugari aurkituz: “Eremutik kanpoko kartografia erabili dute, elkarren artean bateraezinak diren eredu topografikoak, arroak eta profil hidrauliko ezinezkoak sartu dituzte. Horrek zorrotzasun tekniko falta larria adierazten du”.



LUKENE PIÑEIRO ALBERDI

Drogen kontsumoa: arduratsua?

“Drogak arduraz kontsumitzea” esaldiak badu dikotomia baten kutsua: drogak arduraz kontsumitu daitezke? Hala bada, zer-nolako drogak? Alkohola drogen demonizazioaren barruan sar genezake? Eta, akaso, badago demonizaturik dagoen drogaren bat egun?

Egia da aspaldi utzi geniola gizarte gisa alkohola demonizatzeari, eta hitz horrek zekarren konnotazio negatiboa droga “gogorragoei” esleitu geniola. Halaber, badirudi horrelako “droga gogorrek” alkoholaren bidea jarraitu dutela eta hauek ere normalizatzen hasiak garela honezkero. Izan ere, duela urte batzuk ezkutuan egiten ziren gauzei argiztapen soziala eman diegu, eta horri eskerrak entzun ditzakegu gaurkoan “drogen kontsumo arduratsua” bezalako esaldi gatazatsuak. Jakina, badago drogen auzia mahaigaineratzen den bakoitzean agertzen den argudio famatua: alkohola ere kaltegarria dela. Hala ere, argitu beharra dago eztabaidaren helburua ez dela inolaz ere alkoholaren apologia egitea –nahiz eta onartu beharra dugun alboratutako aurrez aurreko elkarriketa horiek poteoek, kafearen pare, zertxobait berreskuratu dituztela–.

Horrenbestez, arduragabekeriaren eta arduraren arteko marra finean kokatzen den eztabaidara bueltatuz, hona hemen koxka: “arduratsu” izatearen interpelazio horrek badu arrisku argi bat: erabakia norberarena dela pentsatzea. Hots, diskurtsoak iradokitzen du baditugula autonomia eta baliabide nahikoa norberaren kontsumoa kudeatzeko (eta beharbada gizartearen kapitulu hori galdu dut, baina uste dut oraindik ez garela utopia horretara iritsi). Baina, kontuz!, askatasunaren erromantizazio faltsuak borondate askea idealizatzen du, norberaren erabakimenetik at dauden egitura eta faktoreak lausotuz, hauek ia desagerrarazi arte. Eta hori da, hain zuzen, normalizazioaren mekanismo –eta arrisku– nagusia.

Baina orduan, zer da benetan arduraz jokatzeko? Zertan datza ardura hori, ardura bera ez bada askea? Ardura hartzeak aske egiten al gaitu? Ba al dago auzi honetan askatasunerako lekuri?

“Badirudi horrelako ‘droga gogorrek’ alkoholaren bidea jarraitu dutela eta hauek ere normalizatzen hasiak garela honezkero”

Faxismoaren aurkako erantzuna emateko prest

Eibarko Asanblada Antifaxista sortu dute eta bihar, abenduak 20, Faxismoaren Aurkako Eguna egingo dute egoera aztertu, faxismoaren aurkako kontzientzia hedatu eta erantzuna antolatzeko. Uxue Gisasola da asanbladako kideetako bat eta berak azaldu dizkigu taldearen jarduna eta helburuak.



Testua eta argazkiak **EKHI BELAR** | Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Faxismoa ez da iraganeko kontua, ezta urrutiko zerbait ere. Jarrera, estetika eta jokabide berriak ditu orain, gizartearen ideia erreakzionarioak hedatu direlarik. “Gure inguruan, eta orokorrean, gorakada erreakzionario eta faxista ematen ari da eta horri aurre egiteko beharra ikusi dugu”, esan digu Uxue Gisasolak. Horregatik sortu dute Eibarko Asanblada Antifaxista.

Egoera konkretuei begira, adibidez, Eibarren eraso faxistaren bat badago edo talde faxistak badatoz, herria erantzun antolatua emateko prest egotea da asanbladaren helburua. Horrez gain, antifaxismoaren kontzientzia hedatu nahi dute herrian. “Behar bat ikusten dugu kontzientzia ideologiko eta kulturala zabaltzeko, eta horretarako egiten ditugu formakuntzak, adibidez”, diosku Gisasolak.

Gaur egun, herriko gazte talde batek osatzen du asanblada eta gazteengana iristen dira batez ere. “Ideia erreakzionarioak kaleetan

Eibarko Asanblada Antifaxtista sortu dute jarrera erreakzionarioei aurre egiteko

eta erakundeetan zabaltzen dira, baina baita sare sozialetan ere, eta ondorioz, gazteen artean hedatzen dira”, bere iritziz. “Beraz, gazteon artean nahiko aktibo egon behar garela uste dugu, horri erantzuna emateko”.

Asanblada Eibarko Gaztetxean biltzen da bi astean behin eta Gisasolak azpimarratzen du asanblada irekia dela, eibartar guztiak bertaratzeko gonbidatzen dituztelarik: “Gainera, Instagram kontua (@eibarantifaxista) zabaldu berri dugu eta hortik emango dugu asanbladen berri, gai konkreturen bat lantzea pentsatzen badugu, edo dena delakoa”.

Faxismoa gure artean

Jarrera erreakzionarioak Interneten edo Eibartik urrun ematen direla pentsa dezakete hainbatek, “baina Eibar ez dago mundutik isolatuta”, Gisasolaren iritziz. “Ez da espazio bat faxismoak tokirik ez duenik. Agian egunero ez ditugu faxistak Eibarko kaleetan ikusiko, baina gazteek sare sozialetan gero eta eduki faxista eta erreakzionario gehiago kontsumitzen dute, eta gero eta normalagoa da jendeak horrelako ideiak gero eta normalizatuago edukitzea. Ez badiegu ideia horiei aurre egiten, ez baditugu gure inguruan lantzen, gezurtatzen edo desmuntatzen, normalizatu egingo dira. Eta ideiez gain, erasoak eta jarrerak ere normalizatu egingo dira”.

Eta zein ideia edo jarrera dira horiek? “Adibidez, jendeak pentsatzea migranteak lana lapurtzera etortzen direla, emakumeok gizonen baino eskubide gehiago dituztela, ideia homofoboak, euskararen kontrako ideiek ere gero



Uxue Gisasola da Eibarko Asanblada Antifaxistaren kideetako bat. EKHI BELAR

eta zabalpen gehiago dute... Ikusi behar duguna da azken hauek direla sistemak zapaltzen dituen subjektu zaurgarrienak, eta faxismoak berak egiten duela lana subjektu horiek egoera horretan geratzeko eta zaurgarri izaten jarraitzeko, funtzio bat betetzen dutelako sistema kapitalistan”.

Jarrera eta ideia erreakzionarioei aurre egiteko, “horrelako espresio orori aurre egitea garrantzitsua da”, Gisasolaren ustez, “espaziorik ez uztea eta ideia hauek desmuntatzea”. Beraz, komentario matxista, arrazista eta homofobikoak gure artean lantzea proposatzen du asanbladak. “Adibidez, lagun batek TikTok-en entzundako komentario erreakzionario bat bota dezake eta, agian, nahikoa da esatea hori ez dela egia edo hortaz hitz egitea eta horrelako espazioak sortzea, gazteon eta eibartarron artean hori lantzeko eta gezurtatzeko”.

Faxismoaren Aurkako Eguna

Euren jarduna gizarteratzeko eta



espazioak zabaltzeko bidean, Faxismoaren Aurkako Eguna prestatu du asanbladak biharko. “Kaleetan gero eta talde biolento gehiago dago (adibidez, Falange Española) eta Vito Quilesekin Iruñean gertatu zena bezalako egoerak gero eta ohikoagoak dira Euskal Herrian. Vito Quilesena gertatu zen egun horretan antifaxista asko berratu zen faxistei espaziorik ez uz-

teko eta, espazioa faxistei kendu beharrean, antifaxista asko izan ziren jazartuak eta hortik isun ugari atera ziren. Beraz, biharko egitarau antifaxista horien isunak ordaintzeko sortu da, besteak beste”, azaldu digu Gisasolak. “Eta bestalde, ikusten dugulako beharrezkoa dela lanketa kultural eta ideologikoa egitea”.

Faxismoa nondik datorren, zein funtzio betetzen duen eta bere espresioak nolakoak diren landuko dute biharko egunean zehar eta, era berean, sozializatzeko espazioa sortuko dute. Horrela, goizean hitzaldia egingo dute Kultun (‘Faxismoa eta gorakada erreakzionarioa’), gero pintxo-pote girotua Untzagan (Gazte Safa eta Eibar Palestinarekin elkarteekin), ondoren bazkaria egingo dute Gaztetxean, ikuskizun akustikoarekin girotuko dute bazkalostea, arratsaldean umore bakarrikzketak egongo dira ZaiZoi tabernan, eta eguna musikarekin amaituko dute Gaztetxean, kontzertu eta dj-ekin.

Eibarren Egindakoak herriko tailerretatik mundu osora zabaltzeko

Urtero bezala, ...eta kitto! Euskara Elkartek astekariaren ale berezia eman du argitara abenduan: 2026ko komertzio eta zerbitzuen gida. Aurreko astean hasi ginen ale berezi hau etxe eta establezimenduetara banatzen, eta publikazioaren edizio digitala ere eskuragarri ipini dugu Interneten, www.etakitto.eus gure webgunean.

TESTUA **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**



EIBARREN EGINDAKOAK
2026ko gidaren
bertsio digitala



Azken urteotan egindakoaren bideetik, aurten ere gure herriarekin zuzenezuzenean lotutako gai bat aukeratu dugu 2026ko komertzio eta zerbitzuen gida honetan lantzeko. Horrela, gure herrian dauden establezimendu eta era guztietarako zerbitzuei buruzko informazio erabilgarriarekin batera, urtean behin kaleratzen dugun argitalpen bereziaren lehen zatian Eibarko iragan industrialari begira jarri gara, herriko tailerretan egindako produktuen zerrenda luzetik batzuk aukeratu eta zuei erakusteko. Lehen atal horrek oso harrera ona izaten ari dela jakin badakigu, eta asko pozten gara. Hala ere, ezin dugu ahaztu urtean behin horrelako argitalpena kaleratzea posible egiten dutenak komertzio eta zerbitzuen gidan agertzen diren bezeroak direla. Izan ere, gidan azaltzeko bakoitzak egin duen ekarpenari esker

kaleratu dugu aldizkariaren ale berezi hau, eta horregatik eskertu nahi diegu guran jarritako konfiantza. Bide batez, barkamena eskatu nahi diegu gidan agertzeko interesa izan arren kanpoan geratu direnei. Kasu batzuetan ezinezkoa izan zaigu-eta beraiekin kontaktuan jartzea. Horrelakorik berriro gertatu ez dadin, eta interesa duten guztiek tokia izan dezaten, dagoeneko hasi gara hurrengo urteko gida lantzen. Beraz, bertan agertu nahiko luketen guztiek 688 62 15 35 zenbakira deitu edota publizitatea@etakitto.eus helbidera idatzi dezakete.

Eibarko industriari omenaldia

Gure herriko lantegietan egindako lanari aitortza gisa, *Eibarren egindakoak* izenburupean, gure herriko tailerretan fabrikatutako pieza ezberdinen irudiak eta horiei buruzko informazioa bildu dugu, fitxa modukoa osatu eta zuei aurkezte-

Eskerrik asko Eibarko Udaleko Armagentzaren Museoari, argitalpen hau egiteko eskainitako laguntasunagatik, eta irudiak eta testuak gure esku jartzeagatik



ko: Solac etxeak egindako egosketa geldorako eltze elektrikoa, BH-ren bizikleta estatikoa, Nai markako izotzetarako botadun patinak, A. Garmendiaren eskuzko garbigailua, Alfaren josteko makina, Serveta Industrial enpresak egindako Honda PC 50 ziklomotor arinaren prototipoa, Irazolaren bihurkinak, El Cascoren kurrika grapagailua, G.A.C. enpresaren *Mobyboard* patinetea, Star fabrikaren pistola semiautomatikoa, Orbea y Cia. enpresan egindako haurrentzako karritoa, Amaya idazteko makina, Olave Solozabal y Cia. lantegiaren Smith&Wesson erako errebolberak, Helmholtz Electronica SA enpresak fabrikatutako telebista, Acha Herramientas-en eskuaira, G.A.C. enpresaren *Tigre* karabina, Lambrettaren scooter motozikleta, Daniel Acharen ileapaindegirako aulkia, Orbearen bizikleta hibridoa, Alfaren *Alfamatic* josteko makina,



Eibarren Egindakoak 2026ko komertzio eta zerbitzuen gidan bildu ditugun pieza gehienak Portalea eraikinaren 5. pisuan dagoen Eibarko Armagentzaren Museoan ikusi daitezke, Eibarko lantegietan egindako beste askorekin batera. SILBIA HERNANDEZ

BH-ren paseorako bizikleta, BOJ etxearen *Buho* kortxo-kentzekoa, JAZ Zubiaurren eskuila metalikoa, AGME-ren marruskadura-markatzailea, El Cascoren paper zulagailua, La Paloma ehizarako eskopeta, Motobic motozikleta arina, Vicente Bueno Orbearen eskribautza damaskinatua, Orozco&Echeverriaren multikopista, SYG S.L. tailerreko kalibrea, Astra-ren pistola semiautomatikoa, Larrañaga

y Elorzaren eskuzko zulagailua... Horiek guztiak argi erakusten digute Eibar eta industria betidanik eskutik joan direla, eta erraz ulertu daiteke Eibar markak sasoi batean izan zuen indarra.

Armagentzaren Museoa, gure ondare industrialaren zaindaria

Gidaren lehen zati hau lantzen hasi aurretik, zuzenean jo genuen Eibarko Armagentzaren Museora,



**Sortu zenetik,
Eibar betidanik egon da
industriari lotuta, baina
loraldirik garrantzitsuena
1960ko hamarkadan bizi
izan zuten tailerretan.**

gure ideia azaldu eta aholku eske. Zentzu horretan, bereziki eskerrak eman nahi dizkiogu Eibarko Udaleko Armagintzaren Museoari eta Marina Barrena Ortuoste bertako arduradunari, hasiera-hasieratik argitalpen hau egiteko eskaini digun laguntza eta prestutasunarengatik, eta gidan kaleratu ditugun pieza horien irudiak eta testuak gure esku jartzeagatik. Horri esker, argitaratutako informazioa egiazkoa eta behar bezala egiaztatua dela jakiteak ematen duen lasaitasunarekin lan egin dugu, gure lana asko errezteaz gain.

Izan ere, adibide modura aukeratu ditugun pieza horiek Eibarko Armagintzaren Museoaren bilduma aberatsaren parte dira eta, era guztietako beste hamaika produkturekin batera, bertan ikus daitezke, Museoaren erakusketa iraunkorrean. Gainera, Eibarko Museoa ezagutzeko interes berezia izanez gero, hilerio es-

kaintzen dituzten doako bisita gidatuetan parte hartzeko aukera dago, aurretik izena emanda.

Gaur egun, Armagintzaren Museoa udal mailako museo-ekipamendua da, eta aurretik Aguirre y Aranzabal eskopeta tailerra hartu zuen Portalea eraikineko bosgarren solairuan kokatzen da. Museoak solairu horretako 1.200 metro karratuak hartzen ditu, eta horietatik 1.000 metro karratu erakusketa-espaziorako erabiltzen dira. Museoaren ardatz nagusia arma-bildumak eta Eibarren egindako produktuek osatzen dute baina, Museoaren bilduma bere osotasunean hartuz gero, 15.000 pieza eta dokumentu baino gehiagok osatzen dute. Horietako asko hainbat funts eta bildumatakoak ziren jatorrian (Armeria Eskola, Carlos Narbaiza Funtsa, Star Funtsa...), eta dohaintzei eta eskuratze berriei esker ailegatu dira Eibarko Museora.



Gabonetake vegketa gida

#EibarrenBadakagu



TXUKUNA

E. Garate, 1

943 82 13 08

- Barruko erropa eta pijamak
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)
- Artileak



Burbujas y más

- Paper denda eta liburu-denda
- *Boles dolor* Premium denda
- Kosmetika naturala eta opariak

Estaziño 5

943 53 16 54



Izadi

San Juan, 1

943 20 33 29

- Landareak
- Zentro naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua



GRATZINA

Zuloagatarren, 1

943 82 15 77

Zorionak!




ANSA
BITXIDENDA

*Zein
dofore!*

Untzaga, 8
943 20 76 21



GU
BY

zorionak!

Zuloagatarren, 9
943 20 12 40
Birjiñape. 1
943 20 28 33



XARE

Zuloagatarren, 1
943 53 67 64
 xareibar
www.xareibar.com



Ditare

Urkizu, 7
943 12 73 21



Gizon eta emakumeendako barruko arropak
Pijamak eta batak... Bereztasuna taila handietan!

atelier11
CONCEPT STORE

T. Etxebarria, 2
688 68 16 04



#EibarrenBadakagu



IRRITSA

zorionak

Ibarkurutze, 6
943 12 71 06
info@irritsamoda.com



umea



Errebal, 16

943 20 31 64

Jauregui

San Agustin, 4
943 20 16 47

Menajea - Beira - Opariak



BITXITEGIA
MARRODAN
ERLOJUDENDA



T. Etxebarria, 24

943 20 73 04

CAPÍ Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es



Kopina

Zorionak eta urte berri on!

San Agustin, 3
943 20 41 81



Twins

zorionak eta urte berri on!

Bidebarrieta, 8
943 05 60 82

www.twinselbar.com

f twins_eibar i twinselbar



BEITTU
AUDIOPTIKA

J. Etxeberria, 13
943 70 02 30

Hemen gaude zu zaintzeko

Gabonetako opariak



#EibarrenBadakagu

Zergatik erosi herrian?

Denok irabazten dugulako

- 1 Herriko ekonomiari laguntzen diogulako
- 2 Eibarrentzako aberastasuna sortzen dugulako
- 3 Gure herria bizirik mantentzen dugulako
- 4 Komunitatea indartzen dugulako

Euskeraz primeran!

eskatu, erosi euskaraz!



Gabonetarako eskaintza berezia egin die Euskeraz primeran! ekimenak jatetxeei

Paisaia linguistikoa euskaratzen laguntzeko eta datozen egun berezietan jatetxeetan euskarazko komunikazioa errazte aldera, eskaintza berezia banatu die otortuak ematen dituzten tabernei ...eta kitto! Euskara Elkartek. Euskeraz primeran! ekimenaren barruan euskarazko hitz eta esaldiak jasotzen dituzten orriak banatu dizkie, hala



nola "Gabonetako menu berezia", "Errege Egunekeo menua", "Ordu-tegi berezia"... Orain dela aste batzuk, San Andres jaien harira, gauza bera egin zuen ...eta kitto!-k, euskarazko eta sasoiarekin bat zetozen hainbat esaldi banatu baitzizkien tabernariei, eta horrekin batera, euskal kantaz osatutako zerrenda ere bai, ostalari zein merkatariei.



Bi ikastarorekin agurtu du urtea Illunabarrian programak

Sormena puri-purian izan zen aurreko astean ...eta kitto! Euskara Elkartean, bi tailerrekin esan baitio agur urteari Illunabarrian programak. Batetik, txapak egiten ikasteko saioan jardun zuten dozena bat lagunek martitzenean, heldu zein haurrak, eta, oso teknika erraza erabili, era guztietako txapak egin zituzten. Eta, bestetik, egunean, kandelaren txanda izan zen. Kolore, material eta usain desberdinak erabiliz, naturalak guztiak, egin zituzten kandelatxoak. Udaberrian eskaintza berriarekin itzuliko dira Illunabarrianeko saioak.

Kalean da urteko azkeneko Txikitto!

Txikitto! hilabetekariaren urteko azkeneko alea esku artean dute jata Eibarko Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek. Ohiko txiste, denborapasa, ipuin eta bitxikeriez gain, abenduko lehiaketako lan irabazlea ikusteko aukera izango dugu, Aldatzeko ikasleek digestio-aparatua azaldu digute eta Amaña ikastetxeko Yasmin ikaslea Pili amamarekin jarri dugu berriketan.



BADATOR

X. GILDA

LEHIAKETA

Otsailak 3, 4 eta 5

Izena eman nahi baduzu, ez galdu aukera!

Izena emateko eta gildaren argazkia bidaltzeko azkeneko eguna: **abendua** 29 (605711422) Informazioa: 943200918 (...eta kitto!)



Kalamua Judo Klubeko kadeteak dominekin itzuli ziren Erandioko Txapelketatik

Kalamua Judo Klubeko kadeteak Erandion izan ziren zapatuan, abenduak 13, bertako txapelketan lehiatzen. Eibartarrek lan txukuna egin zuten eta dominekin itzuli ziren, June Valladares eta Doha Shriren eskutik.

June Valladares -63 kategorian lehiatu zen eta, lehen borroka galdu arren, aurrera egin zuen bigarren aukeran irabazita. Ondoren, beste

bilehia irabazi zituen, finalera iritsiz. Azken neurketan, denbora agortzear zela, wasari batengatik galdu zuen.

Doha Shrir, bere aldetik, minduta iritsi zen Erandiora, baina egoerari buelta eman zion eta lehen borroka galdu eta gero, bigarren aukeran irabazi zuen, baina hirugarren borrokan ezin izan zuen garaipenik lortu eta finaletik kanpo geratu zen, brontzea lortuz.

Berriz hartuko du atsedena futbol zaletuaren ligak

San Andres jaien eta abenduko zubiaren ondorioz geldirik egon ostean, futbol zaletuaren liga berriz itzuli da lehiara asteburu honetan. Bat-bateko itzulera izan da, Gabonak direla eta, berriz egongo delako atsedenaldia, urtarilaren 10era arte.

Ligan bizi den emozio motzen dute atsedenaldi hauek, lehia bizia baitago lehen hiru sailkatuen artean. Azkenengo jardunaldian Xania Tabernak atseden hartu du eta Bar Maremek aurrea hartu dio Limpiezas Ruedari irabazita.

Horrela, Maremek 26 puntu ditu eta Xaniak 24, 30 puntu dituen Malape Tabernaren atzetik.

SAILKAPENA

1. Malape Taberna, 30 puntu
2. Bar Marem, 26 puntu
3. Xania Taberna, 24 puntu
4. Bergara Pneumatikoak, 17 puntu
5. Adahi Etxegi, 13 puntu
6. Garajes Garcia, 12 puntu
7. Kalaka Buenos Aires, 12 puntu
8. Limpiezas Rueda, 6 puntu
9. Baserri, 0 puntu

Nori emango zenioke Eibarko Kirol Saria?

Abenduaren 31n, eta aurten 30. aldiz, Eibarko Kirol Sariak banatuko ditu ...eta kitto!-k. Gure herrian egiten diren kirol-modalitateetako kirolari nabarmenek saria jasoko dute, eta baita kirolean euskara bultzatzeagatik eta herrian kirola sustatzeagatik lana egiten duten erakundeek ere. Eta noski, sari berezia jasoko du urteko kirolari nabarmenenak.

Kirol taldeen eta antolatzaileen esku dago izendapen horien au-

keraketa, baina aurten zuen iritzia ere jaso nahi dugu eta, horretarako, PUBLIKOAREN SARIA emango dugu.

Horretarako, bi modu egongo dira: Batetik, gure Instagram kontuan aurkituko duzuen storietan eman ahal izango duzu bozka; eta bestetik, gure webgunean dagoen formularioan idatzi dezakezue (alboko QR-a eskaneatuz helduko zara). Abenduaren 23an erabakiko dugu nor den saritua.





Deporreko atletak nagusi Bolunburu Oroigarria krosean

Eguraldi eguzkitsuarekin lehiatu zen domekan 74. Bolunburu Oroigarria Krosa. 300 atleta inguru elkartu ziren Arraten, hainbat kategoriatako probak jokatu zirelarik.

Proba nagusian, gizonetzkoen maila absolutuan, eibartar bat izan zen garaile: Julen Teran. Deporreko atletak 22 minutu eta 47 segundo behar izan zituen irabazteko eta atzetik sartu ziren Bingen Aranbarri (Azk eta Azp Xeye Ake) eta Iñigo Lariz (Mintxeta).

Emakumezkoei dagokienez, Goierri Garaia taldeko Ainhoa Sanz izan zen irabazle (25'26 min) Atletismo Audioko Haizea Solaunen (20'29 min) aurretik.

Gizonetzkoen 20 urtez azpikoen mailan, Klub Deportiboko Ugaitz Gartzia irabazi zuen (11'25 min); eta emakumezkoen 18 urtez azpikoenenean Nora Martinez eibartarra gailendu zen (11'34 min).



Maria Canoren logoa izango da Urbaten 25. urteurrenaren irudia

Urbat IKE-k 25 urte beteko ditu 2026an eta urteurren berezirako logo lehiaketa jarri du martxan klubak. Hainbat lan jaso ditu eta epaimahaiak Maria Cano Garciak egindakoa saritu du. “Logo hau urteurren berezi honetan klubaren irudi nagusia izango da, Urbatek 25 urte hauetan izan duen historia, balioak eta nortasuna islatuz”, diote klubetik.

Datorren urtean zehar urteurren berezia ospatzeko ekintzak egingo dituzte eta lehiaketa honekin eman diete hasiera ospakizunei. “Klubetik eskerrak eman nahi dizkiegu lehiaketan parte hartu duten pertsona guztiei, aurkeztutako lanen maila oso altua izan baita, eta erabakia hartzea ez da erraza izan”, aitortzen dute.



Jon Ander Odriozola Goiricelaya

3. URTEURRENA
2022/12/18

“Maite dugunaren argia ez da sekula emetatuko”

BETI IZANGO ZAITUGU GOGOAN

— IRAIA ETA MIREIA —





ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

688 62 76 89

Urkizu, 11 - solairuartera
publizitatea@etakitto.eus



XI. Gabontraila aldaketa txikiekin etorriko da abenduaren 24an

Gabonetako jaiak mendiaz gozatzen hasteko aukera emango du Eibar-ko Klub Deportiboko mendi batzordeak beste behin. Aurten XI. Gabontraila egingo da abenduaren 24an eta, ohiko ibilbideari jarraituko dioten arren, aldaketa txiki batzuk sartuko dituzte. Hori bai, ez dira faltako Kalamua tontorreko argazkia eta Parlamentuko turroia eta kaba.

Irteera 08:30ean egingo dute, Deporparetik, eta toki berean amaituko da, Toribio Etxebarria kalean, 11:00-11:30 inguruan. Parte-hartzaileek 16,26 km-ko ibilbidea osatuko dute, 754 m-ko goranzko desnibel metatuarekin, eta antolatzaileen berbetan bere zailtasun-maila erraza da. "Urtean zehar antolatzen ditugun trail irteeren helburua jendea mendian korrika egitera animatzea da. Horrek ez du esan nahi denbora guztian korrika egin behar denik. Normalean, igoera gogorak oinez egiten dira; baina, lauian eta aldaipa behera korrika lasaian edo 'trotean' egiten saiatzen gara. Ibilbidean zehar geldialdiak ere egiten ditugu

arnasa hartu eta taldea elkartzeko", diote antolatzaileek.

Trail irteera hau doakoa da eta edozeinek hartu dezake parte, baina antolaketa lana errazteko beharrezkoa da izena ematea Deporren webgunean dagoen galdetegian.

Aholkuak

Proba egiteko orduan, honako aholkuak ematen dituzte Deporrekoe: "Nahiz eta ibilbideak zailtasun teknikorik ez izan, eta antolatzaileek korrikalariak gidatu (aurrekoak zein atzekoak), bakoitzak bere ardurapean hartuko du parte. Hau da, ezbeharren bat gertatuz gero, antolakuntza ez da arduradun egiten. Hori dela eta, gure gomendioa da herriko klub edo mendi taldearen bidez Mendian Federatua izatea, edo norberak bere asegurua izatea. Bestalde, ondorengo materiala eramatea gomendatzen da: mendian korrika egiteko oinetakoak, telefono mugikorra, zira, ura, jateko zer-bait eta edalontzi berrerabilgarria jardueraren garapen arrakastatsua bermatzeko.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

Madrid CFF - EIBAR (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Real Valladolid (gaur, 20:30)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Gernika - EIBAR B (bihar, 18:30)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Deusto - EIBAR C (bihar, 17:15)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

URKI - Hernani (bihar, 12:35)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

EIBARTARRAK - Mondragon B (bihar, 18:30)

Erregionaleko 1. maila (gi)

URKI B - Axular Lizeoa B (bihar, 15:30)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

EIBAR - Athletic Club (bihar, 12:00)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

EIBAR B - Athletic Club B (bihar, 16:00)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

URKI - Olarizu (bihar, 15:30)

ESKUBALOIA

1. Maila Nazionala (gi)

EIBAR ESKUBALOIA - Uharte (bihar, 19:00)

Seniorren Euskadiko Liga (gi)

Elgoibar - EIBAR ESKU. B (bihar, 19:00)

WATERPOLOA

2. Maila Nazionala (gi)

Dos Hermanas - URBAT (bihar, 15:30)

EH-ko 1. Maila (em)

URBAT - N. Portugalete (bihar, 11:30)

Kirol albiste gehiago
gure webgunean



SOFIA MACHIN • Artista

“Ez da orain arte egin dudana izango, zerbait handiagoa baizik”

Sofia Machin artista eibartarrak bere lehen kontzertua emango du abenduaren 26an, 19:00etan, Coliseon. Artistak prentsaurrekoan adierazi duenez, hitzordu berezia izango da, aurrenekoz igoko baita agertoki handi batera musikariez lagunduta, eta, gainera, bere herrian.

Testua **IRATI ALVAREZ** | Bideoa **YANIRE SAGREDO**



Sofia Machin artista eibartarrak urrats garrantzitsua emango du bere ibilbide musikalean datorren abenduaren 26an. 19:00etan, Coliseo antzokiko agertoki nagusira igoko da lehen aldiz, banda batez lagunduta eta bere herrian bertan. Kontzertua Eibarko Udalaren kultura-programazioaren barruan kokatzen da, eta bertan bere proiektu pertsonala aurkeztuko du, azken urteetan sortutako abestiekin. Hurbiltasuna, zintotasuna eta emozioa dira bere proposamenaren ardatzak, egunerokotasunetik eta intimitatetik sortutako musikan oinarrituta.

Abenduaren 26an lehen aldiz igoko zara Coliseoko agertoki handira, gainera Eibarren bertan. Zer sentitzen duzu hitzordu hau atarian duzula?

Alde batetik pixka bat urduri nago, baina bestetik 26a iristeko gogotsu.

Formatu txikiko kontzertuetatik banda batekin antzoki batera pasatzea jauzi handia da. Nola prestatu zara aldaketa horretarako?

Azken finean beti egon naiz nire gitarrarekin bakarrik edota kontzertu txikiak egiten. Horri pixka bat buelta ematea izan da niretzat erronka. Musikariek

entseatzen ibili naiz topera, eta uste dut kontzertu berezia izango dela.

Nola deskribatuko zenuke honaino egin duzun bidea?

Txikitatik ibili naiz musikan sartuta, bai Eibarko Koro Gaztean, bai musika taldeetan. Urte askoan Anderrekin batera duo gisa coverrak egiten ibili naiz, eta orain pixkanaka nire proiektua sortzen hasi naiz.

Azken urtean zure kantu propioak argitaratzen hasi zara. Zer aldatu da zuretzat artista gisa?

Aldaketa nagusia beldurra kentzea izan da. Betidanik izan ditut nire abestiak koaderno batean gordeta, baina oraingoan ausardia izan dut proiektua aurrera eramateko. Aurrerapauso handia izan da niretzat: aurten hasi naiz nire kanta kaleratzen, eta helburu argia dut, nire lehen diskoa ateratzea.

Nolakoa izan da sormen-prozesua?

“Aldaketa nagusia beldurra kentzea izan da”



Sofia Machin Coliseo antzokiaren aurrean. IRATÍ ALVAREZ

Abestiak etxean zein kanpoan idazten ditut. Orain-txe hasi naiz gitarra klaseak ematen, eta horrek asko lagundu dit melodiekin. Abestiak kaleratzeko erabakia hartu nuenean produktore bila hasi nintzen, eta horrela ezagutu nuen Aitzol Hidalgo. Biok lan polita egin dugu estudioan; musika egiteko beste modu bat izan da.

Baduzu erreferenterik?

Askotut. Hurbilekoak, adibidez, Samurái, Izaro edo Maren, eta nazioartean, Rosalia.

Nola definituko zenuke zure musika?

Hasieratik oso argi neukan proiektua oso pertsonala izango zela. Nire ahotsa eta gustatzen zaizkidan abestiak halakoak dira, eta inguruan ikusten ditudanak, pentsatzen ditudanak edo gertatzen zaizkidanak islatu nahi ditut.

Zure musikak intimitatetik eta egunerokotasunetik edaten du. Nola eramaten da hori agertoki handi batera?

Erronka handia da, horregatik nago urduri. Lehenengo kontzertua izango da, baina espero dut aurrera begira gehiago egitea. Oraingoan musikariekin izango naiz oholtza gainean eta etorkizunari begira irekita nago.

Zer harrera izan du kontzertuak zure inguruan?

Gertukoak oso pozik eta irrikitan daude. Babes handia eman didate.

Zer aurkituko du publikoak kontzertuan?

Kontzertua nire proiektua aurkezteko planteatuta dago. Nire lehen EP-a izango da: dagoeneko kalera-tutako abesti batzuk eta oraindik argia ikusi ez duten beste batzuk aurkeztuko ditut, eta ondoren cover batzuk ere egingo ditut. Hemendik aurrera nire proiektua nolakoa izango den erakustea da helburua.

Eibarko Coliseo antzokia kultur erreferentea da. Zer suposatzen du zuretzat espazio horretan aritzea?

Oso espazio berezia da niretzat. Txikitatik ibili naiz Coliseon abesten edo dantzan, beraz, oso berezia da bertan nire proiektua aurkeztea.

Etorkizunera begira, zer nahiko zenuke kontzertu honen ondoren?

Kontzertu gehiago eskaintzea eta jendea nire musikara erakartzea nahi dut. Nire musikarekiko interesa piztu nahi dut, sentimenduak edo txinpartak sortu. Horregatik, herritarrak kontzertura etortzera animatzen ditut: ez da orain arte egin dudanaren antzekoa izango, ez naiz ni bakarrik egongo taula gainean, zerbait handiagoa izango da.

“Zaintzen nauen eta on egiten didan generoa da poesia”

IKER ARANBERRI SARASUA • Idazlea



“Idazlearekin Harixa Emoten” irakurle-taldeak Iker Aranberri (Eibar, 1978) idazlearekin agurtu du urtea. “Baden Verboten” (Pamiela, 2025) poema-bildumarekin Xabier Lete saria irabazi berrikan egin genion elkarrizketa; orain, saritutako lan hura liburu bihurtuta, berriz ere elkartu gara Ikerrekin, azken hilabeteetako bideari buruz berba egiteko.

Testua **MAIDER ARANBERRI**

Liburua argitaratzeak eta saria irabazteak, nora eraman zaitu? Eta zer nolako esperientzia izan da?

Ezagutzen ez nuen alor bat bizitzera eraman nau liburua argitaratzeak: elkarrizketak, aurkezpenak, tertuliak... Egia esan ez nago ohituta jende aurrean edo hedabideetan hitz egitera, baina ohitu egiten zara, nolabait. Gainera, horrelako ekitaldiek balio izan didate liburua bera eta bertako olerkiak hobeto ezagutzeko, ondo aztertuta eta mamurtuta eraman behar izaten baitira, zure lana modurik egokienean defendatzeko. Eta prozesu hori oso aberasgarria izan da. Aldez aurretik poemei ikusten ez nizkien erpinak deskubritzera iritsi naiz.

Zure lehenengo lana liburudendetan, Durangoko Azokan ikustea. Zer izan da zuretzat?

Batez ere poz sentiazioa dudala esango nuke. Beti esan izan dut hasiera batean olerkiak nik bakarrik irakurtzeko idatzi nituela. Sariari esker, ordea, hasierako errespetua uxatu dut, eta jendearengana iristea da liberazio moduko bat izan da.

Orain dela hilabete batzuk aipatu zenuen “inpostorearen sindromea” baretu zaizu zertxobait?

Apurtxo bat apaldu zait, bai, baina hori nire berezko izaerarekin doa eta ez dut uste berehalakoan joango zaidanik! Oraindik hasiberria naiz literaturaren munduan, egile bezala, baina jarraipena eman nahiko nioke, eta ea horrekin guztiz ezabatzen dudana inpostorearen sindrome hori.

Bost urteko prozesu luzea dago liburuaren atzean. Zelakoa izan zen idazketa-prozesua?

Bost urtez luzatu zen prozesua izan zen, bai, baina liburuaren % 90 pandemia garai betean idatzi nuen, batez ere 2020an. Idazteak asko lagundu zidan garai hartan, egoera hark eragiten zizkidan beldur, kezka eta zalantzak kanporatzeko eta bideratzeko modu bat izan zelako. Garai hartako olerkiak tristeagoak eta ilunagoak dira. Nik uste, arretaz irakurriz gero, bereiz daitekeela poema bakoitza noiz idatzita dagoen, pandemia garai betean edo ondorengo urteetan. Egia esan, prozesuarekin asko disfrutatu dut, baita ikasi ere. Oso bide polita izan da.

Zein momentu bizi du poesiak? Bazterrekoa izaten jarraitzen du? Zergatik uste duzu?

Nik uste bazterrekoa izateari ez diola inoiz utziko. Ez behintzat kultura poetiko pobrea edukitzen jarraitzen dugun bitartean. Poesia kontsumitzeko ohiturarik ez dugu, eta horrek, zorionez edo zoritxarrez, poesiari eman dio exotismo kutsua. Batzuei, exotismo horrek, erakarri egiten die eta mundu berri horretara gerturatzeko aitzakia da. Beste askori, aldez, gehiengoari esango nuke, arrotza egiten zaie poesia eta saiakerarik ere ez dute egiten generoa ezagutzeko. Nik traszendentzia kenduko nioke poesiaren ustezko zailtasun horri. Euskara ikastea zaila dela dioten horien argumentua iruditzen zait. Zaila izan daiteke, bai, baina esfortzuak merezi du. Mundu berri bat irekitzen zaizu.

Noiz etorri zitzaizun poesiaren deia?

Egia esan, nahiko berandu gerturatu izan naiz poesia-ra, bai idazle moduan, bai irakurle bezala. Egia esan,

“Poesia irakurtzen hasi nahi duenari esango nioke ez dadila obsesionatu olerki baten esangura asmatzearekin, goza dezala irakurketaz”

neurri handi batean, ...eta kitto! Euskara Elkarteari zor diot poesiarekiko lehen gerturaketa: garai batean erredaktore eta argazkilari lanak egiten nituen aldizkarian eta behin Gotzon Barandiaranen ‘Arrakalak’ poesia-liburuan oinarritutako emanaldi batera joatea egokitu zitzaidan. Taula gainean ikusi nuenak, eta horrek sentiarazi zidanak, horrenbeste txunditu ninduen, handik aurrera poesiaren mundura gehiago gerturatzen hasi nintzela, gaur arte.

Liburua irakurtzen duenak errekonozituko du Iker bertan?

Liburua irakurtzen duenak Iker ezezagun bat eza-gutuko duelakoan nago. Ortega y Gassetek esaten zuen guztiok bi existentzia mota bizi ditugula. Bata, bakardadean ateratzen dugun izaera autentikoa; eta bigarrena, besteen buru eta irudimenean sortzen den nortasun legendarioa. Lehenengo horretara nahiko gerturaketa fidela egingo du irakurleak, poemak bakardadean eta, hasiera batean, nik neuk bakarrik irakurtzeko idatzi nituelako.

Zein poesia egile duzu ispilu, zein duzu erreferente?

Erreferente bezala gutxi aipatuko nituzke, bakoitzak bere izaera eta nortasuna duen heinean, estilo propioa duelako, eta nik ere ahots propioa sortu nahi dut. Baina onartu beharra daukat hainbat poeta izan ditudala inspirazio-iturri: Asier Serrano eta Gotzon Barandiaran bera, Joseba Sarrionandia, zalantzarik gabe; Leire Bilbao, Miren Agur Meabe edota Castillo Suarez... Atzerriarrak aipatze aldera, Rainer Maria Rilke edota John Bergerren izenak botako nituzke.

Poesia-lan gustokoren bat?

Berriki irakurritakoen artean Iñaki Irazuren ‘Zakur zaunkak’ aipatuko nuke. Memoria-ariketa polita egiten du, bere familiaren gertaera batzuetatik abiatuta. ‘Kartzelako poemak’, Sarrirena, askotan bisitatzen duen liburua da, klasiko bat jada. Irakurri beharrekoa.

Poesian hasiberria denari zer gomendatuko zenioke?

Poesia irakurtzen hasi nahi duenari esango nioke ez dadila obsesionatu olerki baten esangura asmatzearekin edo interpretatzearekin. Goza dezala irakurketaz eta



harritu dadila irakurketa horrek bere buruan sortzen dituen irudi eta egoerekin. Ez dezala poema-liburua hasi eta bukatu jarraian, eman diezaiola denbora olerki bakoitzari, astiro irakur dezala. Irakurketa bat proposatzekotan, lehen aipatu dudana ‘Kartzelako poemak’ esango nioke, Joseba Sarrionandiarena. Segi korrika dendara eroatera edo liburutegira mailegatzera!

Zeozer darabilzu esku artean?

Xabier Lete sariketa irabaztea eta liburua argitaratzea izan dira nolabaiteko akuilu idazten jarraitzeko, eta horretan ari naiz azken urtean. Poesiarekin jarraitzen dut, eroso sentitzen naiz genero horretan, gustura. Zaintzen nauen eta on egiten didan generoa da poesia. Gustatuko litzaidake bigarren liburu bat argitaratzea, eta ‘Baden verboten’ poemategiari jarraipena ematea, beste gai batzuk landuz.

Beste genero literario batzuetan irakurriko zaitugu noizbait?

Ez dut baztertzen, baina, momentuz, zail xamar ikusten dut. Dudan bizimoduagatik eta eguneroko frenetikoa-ren ondorioz, poesia da hobekien egokitzen dena nire idazteko ohituretara. Baina bai, gustatuko litzaidake saltoa ematea beste generoren batera.



Lourdes Iriondori buruzko lanaren azken argitalpena

S.H. Zornotzako Udalak eguazten honetan jakinarazi du Santiago Onaindia Ikerketa Bekaren XIX. edizio-rako bekaduna Cira Crespo historialari eta kazetaria izango dela. Agerraldi berean, bekaren XVIII. edizioari dagokion lanaren azken argitalpena aurkeztu zuten egileek: Lorea Jainaga Albizu eibartarra eta Alexander Gurrutxaga Muxika. Bi urteko ikerketak *Lourdes Iriondo*, *Bide-urratzaile* izenburua du, eta bere figuraren berrirakurketa kritikoa proposatzen du, euskal musika modernoaren aitzindari gisa ez ezik, frankismoaren urte gogorrenetan euskarazko haur literaturan lehen sortzaileetako bat ere izan zelako.



Parrokiako Koroak hiru kontzertu emango ditu

S.H. Gabonak direla eta, Eibarko Koro Parrokialak hiru kontzertu emango ditu “giroa musikaren bidez alaitzeko”. Hiru emanaldiak Karmengo Amaren elizan (Karmelitik) izango dira, abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an, 12:00etako metzetan. Abesbatzatik azaldu digutenez, “Gabonetako mezu tradizionala eta espirituala musikaren bitartez herritarrei hurbiltzea da asmoa”. Errepertorioan ohiko Gabonetako abestiak izango dira nagusi, publiko guztia errentzat pentsatutako emanaldietan.



“Atearen beste aldean” testurik gabeko antzezlan

S.H. Hika Teatroa konpainiak *Atearen beste aldean* antzezlan taularatuko du Coliseon, abenduaren 29an (astelehena), 17:00etan. Publiko familiarrentzat pentsatutako lana da, testurik gabeko ikuskizun parte-hartzailea, eta egileen berbetan “erresilientzia egoera txarrak gainditzeko gaitasun handia duten pertsonei buruz hitz egiten du”. Sarrerak 5 euro balio du.



Trantsizioari buruzko erakusketa Topalekun

S.H. Iratzar Fundazioaren eskutik, “1975 Dena jokoan zegoen urtea” erakusketa ikusi ahaliko da Topalekun abenduaren 22tik 28ra bitartean. Antolatzaileen berbetan, “duela 50 urte, hiru hilabete eskasean, Txiki eta Otaegi fusilatu zituen erregimen frankistak, Franco diktadorea hil zen, eta Juan Carlos I Borboikoak estatuburu kargua hartu zuen Espainian. Espainiar trantsizio gisa ezagutzen dena azalera zuten gertakari garrantzitsuak izan ziren. Erakusketa honek Euskal Herriaren ikuspegitik urte hartan gertatutakoaren memoria jaso eta gaur egunera dakar, trantsizio espainiarrak Euskal Herriaren bilakaeran izan zuen eraginaz gogoeta egiteko elementuak ematearekin batera”.



Domekan agurtuko dute urtea Usartzako txistulariek

S.H. Usartza Txistulari Taldeak Gabonetako kontzertua emango du domekan (abenduak 21), 12:30ean, Untzagan (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan), eta Enrique Montero zuzendariak azaldu digunez, “aurten inoiz baino parte-hartzaile gehiago izango gara”. Usartzako Txistulariekin batera, jarraian aipatzen ditugun hauek ere arituko dira, batzuk instrumentuekin eta beste batzuk kantuan: metal boskotea, perkusioa, pianoa, Juan Bautista Gisasola Eibarko Udal Musika Eskolako txistu eta biolontxelo ikasleak, Ecos koroa, Eibarko Koro Gaztea eta JBG koroa.

Programa osatzeko Euskal Herriko zein beste herrialde batzuetako Gabon kantak aukeratu dituzte, “gehienak oso ezagunak”. Joko dituztenen artean hauek daude, besteak beste: *Lo dago gure haurtxoa* (herrikoia), *Birjiña Maite* (herrikoia), *Oi Bethleen* (herrikoia), *Etxe honetan* (Josu Bergara), *Last Christmas* (WHAM, George Michael), *Mesias sarritan* (Bartolome de Ercilla), *Hator hator* (herrikoia), *Ole! Olentzero!* (Ene Kantak, mold. Juanma Saez), *Mi Burrito sabanero* (Hugo Blanco, mold. Juanma Saez), *Olentzero Rockero* (Nahiz eta Naia) eta *Martxa Radezky* (J. Strauss, mold R. Lekue). Monterok dioenez, “kontzertua oso polita izango da, urteko azkena. Gainera, guretzat oso urte berezia izan da, Eibarko lehen txistulari bandaren 90 urteurrena ospatzeko ekitaldi ugari izan ditugulako, eta domekako kontzertuarekin amaiera biribila emango diogu 2025. urteari”.



Askatasuna eta aniztasuna islatzen duten argazkiak

S.H. Premiazko aniztasuna. Askatasunean katerik ez izenburupean, Ibon Rokandio eta Mertxe Martinen argazki erakusketa ikus daiteke egunotan Untzaga gizarte zentroan. Artisten arabera, “argazkien bitartez gorpuztutako ekarpena izan nahi du, inposatutako bidetik kanpo dagoen egungo errealitate soziala irudikatzeko. Estetika pertsonala, genero-identitatea, sexualitatea eta gizarte-harremanak bizitzeko beste modu batzuetara ematen duen leihoa”. Abenduaren 28ra arte bisitatu daiteke, astegunetan 19:15etik 21:00etara; eta zapatu eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara (abenduaren 25ean itxita egongo da).

Marrazki Jam Saioa egingo da hilaren 27an Ipuruako Merkatuan

S.H. Maite Arriaga artista eibartarrak antolatuta, abenduaren 27an (zapatua) Marrazki Jam Saioa egingo da Ipuruako Merkatu Plazan, 19:00etatik 21:00etara. Horrelako saioetan marrazkilari batzuk elkarrekin biltzen dira, inprobisatzeko, ideiak partekatzeko eta presiorik gabe marrazteko. Honetan, gainera, zuzeneko musika egongo da. Dohainik izango da, baina aurretik izena eman behar da, 668516893 telefono zenbakira deituta.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		3	8		2			
1				7	6			
6				4	1	9	3	
					8		4	
		5				2		
	9		7					
	4	2	6	5				3
			9	8				6
			2		4	7		

SUDOKUA

5	6	9	2	1	4	7	9	5
9	2	7	1	6	8	3	4	5
6	4	2	5	9	7	1	8	3
3	8	7	9	5	2	6	4	1
7	1	8	3	4	6	5	9	2
8	5	4	3	7	2	9	6	1
2	3	6	9	1	5	8	7	4
4	9	5	2	8	6	3	1	7
1	7	3	6	4	1	9	5	8

2	9	5	4	1	3	8	7	6
6	4	7	5	8	2	1	9	3
1	3	8	7	2	6	9	5	4
4	2	6	1	9	5	7	3	8
8	7	6	3	9	4	1	2	5
3	5	1	8	7	2	4	6	9
7	1	2	6	5	8	3	4	9
5	8	3	4	1	9	7	2	6
9	6	4	2	3	7	5	8	1

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	6		2	3				1
						2		
	1		9				4	
3			8			4		
8		6	3		4	1		5
		9			5			8
	3				6		5	
		7						
2				1	3		7	

TOPATU
IRUDIAN
10 OBJETUAK



NON EZKUTATU DA HARTZA?



Abenduak 19 / Abenduak 29

BARIXAKUA 19

GABONETAKO TXIRRISTA

17:00/21:00 Eibarko Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) antolatuta, haur zein helduentzat. 3 euro (doan EMGI-ren bonoarekin) lau aldiz jeisteagatik. Untzaga.

SANTO TOMAS

18:30 Santo Tomas ospakizuna. Ipuruako jubilatuen etxea. **19:00** Ospakizuna. Urko jubilatuen etxea.

ZAPATUA 20

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:30 eta 17:00/20:00 Ipuruako Merkatu Plaza.

FAXISMOAREN KONTRAKO EGUNA

11:00 Hitzaldia: "Faxismoa eta gorakada erreakzionarioa". Kultu. **12:30** Pintxo-pote girotua. **14:30** Bazkaria (10 euro). Eibarko Gaztetxea. Bazkalostean, kontzertu akustikoa. **18:00** Umore bakarriketak, Marel Ramos eta Manex Astigarragaren eskutik. Zazoi taberna. **21:00** Kontzertuak: Hankaz gora eta Mirotz. Ondoren, DJ-ak (dj.puts eta glls_musik). 5 euro. Eibarko Gaztetxea.

GABONETAKO TXIRRISTA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00 Eibarko Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) antolatuta, haur zein helduentzat. 3 euro (doan EMGI-ren bonoarekin) lau aldiz jeisteagatik. Untzaga.

OMENALDIA

12:00 Felix Elkoroiriberi "Txopitea eta Pakea" saria emateko ekitaldi irekia. Udaletxea (pleno aretoa).

TAILERRA

17:00 Bitxigintza industrialeko tailerra. Doan (aurretik izena eman behar da museoa@eibar.eus helbidean). Eibarko Armagintza-ren Museoa.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipuru kiroldegia.

DOMEKA 21

GABONETAKO AZOKA

11:30/14:30 Ipuruako Merkatu Plaza.

GABONETAKO TXIRRISTA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00 Eibarko Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) antolatuta, haur zein helduentzat. 3 euro (doan EMGI-ren bonoarekin) lau aldiz jeisteagatik. Untzaga.

MUSIKA

12:00 Untzaga gizarte zentroko abesbatzaren emanaldia. Karmengo Amaren eliza (Karmelitik).

24. KORRIKAKO DENDA

12:00/14:00 Arropa-salmentarako mahaia (petoak, kamisetak, kirol-jertseak, lepokoak, galtzerdiak, biserak...), Eibarko AEK euskaltegiaren eskutik. Untzaga plaza (arkupeetan).

MUSIKA

12:30 Usartza Txistulari Taldearen Gabonetako kontzertua, honako hauek lagunduta: metal boskotea, perkusioa, pianoa, eta Juan Bautista Gisasola Eibarko Udal Musika Eskolako txistu eta biolontxelo ikasleak, Ecos koroa, Eibarko Koro Gaztea eta JBG koroa. Untzaga plaza (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan).

tzaga plaza (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan).

SANTO TOMAS

13:00 Santo Tomas ospakizuna. Beheko Tokia adinekoen zentroa.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipuru kiroldegia.

ASTELEHENA 22

GABONETAKO TXIRRISTA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00 Eibarko Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) antolatuta, haur zein helduentzat. 3 euro (doan EMGI-ren bonoarekin) lau aldiz jeisteagatik. Untzaga.

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

18:00 Olentzero eta Mari Domingiren bisita. Beheko Tokia adinekoen zentroa.

MARTITZENA 23

GABONETAKO TXIRRISTA

11:00/14:00 eta 17:00/21:00 Eibarko Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) antolatuta, haur zein helduentzat. 3 euro (doan EMGI-ren bonoarekin) lau aldiz jeisteagatik. Untzaga.

EGUAZTENA 24

GABONTRAIL

08:30 Eibarko Udalak eta Eibar XI. Gabontraila. Irteera eta amaiera: Toribio Etxebarria kalea (Deporparetik).

OLENTZERO

11:30 Zatoz Olentzerorekin

abestera" kantu-kalejira. Urkizutik Untzagara. Ondoren, Olentzerok haurren gutunak hartuko ditu (udaletxeko patioan).

BARIXAKUA 26

MUSIKA

19:00 Sofia Machinen kontzertua. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ZAPATUA 27

MARRAZKI JAM SESION

19:00/21:00 Maite Arriagarekin. Dohainik (izen-emateak 668516893 telefonon). Ipuruako Merkatu Plaza.

ASTELEHENA 29

ANTZERKIA

17:00 Atearen beste aldean "Hika Teatroa". Lau urtetik gorakoentzat. 5 euro. Coliseo.

ERAKUSKETAK

Abenduaren 22tik 28ra

"1975 Dena jokoan zegoen urtea", Iratzar Fundazioaren eskutik. Topaleku.

Abenduaren 28ra arte

"Premiazko aniztasuna. Askatasunean katerik ez" Ibon Rokandio eta Mertxe Martinen argazki erakusketa. Untzaga gizarte zentroa.

Urtarrilaren 11ra arte

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen lanak. Portalea. "Gau beilako eleak", Jon Ibalaren pintura erakusketa. Portalea.

Otsailaren 1era arte

"Errobera artean". Eibarko Armagintza-ren Museoa.

ZINEA COLISEO



“Coartadas”
KOMEDIA.
2025/Espainia/94’
Zuzendaria: Martín Cuervo
Aktoreak: aime Lorente, Adriana Torrebejano, Leo Harlem
Remake.

- 1 ARETOA**
- **19an**: 19:30
 - **20an**: 19:45, 22:30
 - **21ean**: 20:00
 - **22an**: 19:30
 - **23an**: 19:30



“La voz de Hind”
DRAMA.
2025/Túnez/89’
Zuzendaria: Kaouther Ben Hania
Aktoreak: Saja Kilani, Motaz Malhees, Clara Khoury
Benetako gertakarietan

- 2 ARETOA**
- **19an**: 19:30
 - **20an**: 17:00, 19:45, 22:30
 - **21ean**: 17:00, 20:00
 - **22an**: 19:30



“3D Avatar. Fuego y ceniza”
ZIENTZIA FIKZIOA. ABENTURAK
2025/AEB/195’
Zuzendaria: James Cameron
Aktoreak: Sam Worthington, Zoe Saldña, Stephen Lang, Oona Chaplin
Sekuela. Epikoa.

- ANTZOKIA**
- **19an**: 19:30
 - **20an**: 17:00, 22:00
 - **21ean**: 16:00, 20:00
- 2 ARETOA**
- **23an**: 19:30



“Olivia y el terremoto invisible”
ANIMAZIOA. DRAMA.
2025/Espainia/71’
Zuzendaria: Irene Iborra
Familia. Stop motion.

- 1 ARETOA**
- **20an**: 17:00
 - **21ean**: 17:00



Doroteo Urkia Lasuen “Doroti”

1. URTEURRENA
2024/12/13

Argi bat emetau zan gure familian ta beste bat ixotu izarren artian. Ez zaittugu ahaztuko bizitza guztian ta beti egongo zara gure bihotzian.





Lucio Aguirrebeña Arizaga

1. URTEURRENA
2024/12/23

“Urtebete igaro da zu gabe, urtebete zu gogoratzen eta zure falta sumatzen. Maite zaitugu”.

- ZURE FAMILIA -



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **SARA!**
6 urte gure etxeko
printzesak. Askok
maite zaittugu!
Patxo haundi bat
famelixaren partez.



Zorionak **MAIDER**
etxeko printzesari!
8 urte bete dozuz
eta. Musu haundi
bat famelixa
guztiaren partez.



Zorionak **AITOR!**
11 urte bete dozuz
eta. Segi oin arte
bezain jator.
Besarkada eta
patxo potoloak
etxekuen partez.



Zorionak **MALEN!**
Abenduaren 13an
9 urte bete zen-
duazen eta. Patxo
potoloa famelixa-
ren partez.



Zorionak **ANDER!**
9 urte bete ditzuzu
eta! Patxo potolo
bana famelixako
danon partez!



Zorionak **HEGO!**
9 urte bete ditzuzu
eta! Musu potolo
bat etxekuen
partez!



Zorionak **ALBA,**
potxola!!! Hillaren
16xan 8 urte egin
dozuz! Askok maite
zaittugu. Zure
famelixa.



Zorionak **URKO!**
10 urte haundi
egin dozuz eta.
Besarkada bat
etxekuen eta,
batez be, zure anai
Mikelen partez.



Zorionak **MARTIN!**
Abenduak 14an,
9 urte bete
zenduazelako.
Patxo handi bat
famelixaren eta,
batez be, Nikolen
partez.



Zorionak **OIHAN!**
Etxeko txikixak urte
bete egin dau, segi
hain alai! Pillua
maite zaittugu!



Zorionak **MARTIN!**
Domekan 2 urte!
Jarraitu horren
alai eta jator!
Musu erraldoi bat
famelixaren eta
batez be, Noraren
partez.



Zorionak **LEA!**
Atzo, 7 urte bete
zenduazen. Jarraitu
beti bezain alai
eta jator izaten.
Patxo potoluak
famelixaren partez
etxeko artistandako!



Zorionak **ADUR** (3 urte) eta **ASIER** (2 urte)
zeuen urtebetetziak izan diralako.
Segi orain arte bezala. Patxo haundi bana.



Zorionak **MAYA!**
Gaur 9 urte betetzen
dozuz eta egunik
onena opa dotsugu!
Jarraitu zure
ametsak betetzen!
Maite zaittugu!
Etxekuen partez!



Zorionak **IZE!**
Hillaren 22xan 6 urte
beteko ditzuzu eta!
Primeran ospatuko
dogu! Musu haundi
bat famelixaren
partez. Maite
zaitugu.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskeraek
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
• Pisua salgai, guztiz hornitua erdigunean. Txaltxa Zelai inguruan. 631579498.
1.2. Errentan
• Gela bat alokairuan hartuko nuke. 631058768. Oscar.
4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Etxean interna bezala edota asteburutan, baita ospitaletan ere. 642852854
• Emakume gaztea eskaintzen da umeak eta nagusiak orduka zaintzeko. Baita maskotak ere. 688894523. Linda
• Entrenamendu pertsonal fisikoak eta futbolekoak egiteko pertsona eskaintzen da. Natalia Wilches. 688894523
• Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Ziurtagiariarekin eta erreferentziekin. 667060292.
• Emakumea eskaintzen da orduka edo interna moduan zaintza lanak egiteko, eta baita garbiketa lanak egiteko ere. 631584186.
• Emakumea eskaintzen da orduka edo jardunaldi osoan umeak edo nagusiak zaintzeko, eta baita garbiketa lanak egiteko ere. 614087544.
• Gizona eskaintzen da sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko, eta baita eraikuntzan lan egiteko ere. 643317266.
• Gizona eskaintzen da pintore moduan lan egiteko. 20 urteko esperientziarekin. Eraikuntzan

peoi moduan aritzeko ere. 634155697. Javi.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 602054567.
• Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan astelehentik ostiralera umeak zaintzeko. 658168092.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 613287661.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna, externa edo orduka. 632768653.
• Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Baita pintura eta gidari-lanak egiteko ere. 641844485. Robinson.
• Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko edo partikularrak emateko. Magisteritza ikasketak. 648625209.
4.2. Langile bila
• Emakumea behar da Eibarko etxe batean interna moduan lan egiteko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 685531040.
• Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan lan egiteko pertsona bat behar du. Gidabaimena ezinbestekoa da. Bidali curriculum: hornikuntza@gmail.com
• Estetizista behar da Eibarko ileapaindegri batean lan egiteko. Lan-giro paregabea. 943208125.

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• Pintura klaseak ume edota helduentzat. Umeak; 4 urtetik aurrera, helduak; edozein adinetakoak. Informazio gehiago www.maitearriaga.com . 668 51 68 93
• DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.
6. DENETARIK
6.1. Salgai
• Txakurrentzako edo katuentzako transportina salgai. 37 zm. zabalera/45 zm. altuera/61 zm. sakontasuna. Estreinatzeak, 20 euro. 688626914.
• Gurgildun aulki elektrikoak salgai. 60 zm. zabalera 90 zm. sakonera. 1.800 €. 688847237 eta 656756470.

Osasuna eta mugimendua zaintzeko espazio berria Eibarren



Muina Fisioterapia zentroa ireki da Eibarren, **osasuna eta ongizatea** ardatz dituen espazio berria. Hamar urteko esperientzia eta etengabeko formakuntzaren ondoren, Irune Alberdi Sarobe fisioterapeutak bere proiektua jarri du martxan, arreta pertsonalizatua eta ikuspegi integralean oinarrituta.

Muina **gorputza osotasunean** ulertzeko eta zaintzeko sortutako gunea da. Irune Alberdi **fisioterapia orokorrean** eta **kirol fisioterapiari** aritzen da, eta bereziki **zoru pelbikoan** espezializatua da.

Tratamendu eraginkorrak eta seguruak eskaintzeko puntako teknologia erabiltza da Muinan: ekografoak, Indiba bezalako tresna aurreratuak...

Zentroan ohiko **min muskuloeskeletikoak** tratatzen dira —lunbalgiak, zerbi-kaleetako minak, lesioak edo ATMarekin lotutako arazoak—, betiere balorazio pertsonalizatu batetik abiatuta. Zoru pelbikoari dagokionez, balorazio eta tratamendu sakonak eskaintzen dira, bizitzako une ezberdinetan ager daitezkeen disfuntzioei aurre egiteko.

Banakako saioez gain, **taldeko jarduerak** ere egiten dira, bizi-unera egokituta: haurdunaldiko kirola, erditze osteko saioak, berreziketa abdominopelbikoa eta bikotean haurdunaldi prestaketa.

Muina Fisioterapiaren helburua argia da: pertsona bakoitzari **arreta gutukoa eta pertsonalizatua** eskaintzea, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

Fisioterapeuta zara? Zuretzak lokal ideala dugu.

Plaza baten ondoan;
hor aitona-amonak
biloben atzetik
ibiltzen dira.



Errekatxu Berri da zure
negozioaren giltza; zatoz.
Lokalak eta **garajeak** salgai,
estreinatzeko prest.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir